

Atomoei inoiz egindako argazkirik zehatzena

2018ko marka hautsita, inoizko bereizmen handieneko argazkia egin diete atomoei Cornell Unibertsitateko ikertzaileek (New York, AEB). Hain zuzen, orain arteko bereizmen onena bikoiztea lortu dute. Pikometroen mailako bereizmena da. Argazkia ikusita, badirudi gaizki fokuratuta dagoela, baina atomoen berezko mugimenduaren ondorioa da.



ARG.: Science.

Ptikografia izeneko teknika erabili dute atomoei argazkia egiteko, non mikroskopio elektronikoko pixel-matrizeko detekttagailu bat (EMPAD) erabiltzen baita kristala aztertzeko. Aldi oro, elektroizpia posizio xumeki desberdin batetik jaurtitzen zaie elektroiei, eta, patroï gainjarriak konparatuta, atomoak zehatzasun handiz berreraikitzeke gai izan dira, algoritmo konplexuak erabilia. 2D material bat aztertu dute; izan ere, material lodiago batean, elektroien dispersioa handiagoa izanik, zaildu egingo litzateke prozesua. Hala ere, hurrena prozesua 3D materialekin egitea da ikerketa-taldearen helburua. [Science aldizkarian argitaratu dute lana.](#) ●

Marteko hodei erraldoiaren sekretuak agerian



EHUko Zientzia Planetarioen Taldeak deskribatutako hodei bereziaren irudiak. ARG.: ESA/GCP/EHU.

Marten ur-izotzezko hodei berezi bat sortzen dela argitu dute EHUko ikertzaileek. 1.800 km luze eta 150 km zabal izatera irits daiteke. Oso azkar zabalitzen da, eta, ordu gutxi batzuen buruan, berriro desagertu da. Baina goizero errepikatzen da, udaberria Materen hegoaldera iristen denean. 2003tik Marteren orbitan bueltaka dabilen Mars Express zundaren azken behaketak baliatuta argitu du Zientzia Planetarioen taldeak [hodei erraldoiaren misterioa](#).

Arsia Mons sumenditik hurbil sortzen da hodei erraldoia. 20 km-ko altuera du sumendiak, eta haizeari oztopo egiteagatik sorrarazten du hodeia. Aireak sumendiaren hegaletan gora egin behar du, eta, hezetasuna daramanez, hoztu egiten da. Hala, hodei orografiko bat sortzen da: 45 km-ko garaieran sortzen da, eta han goiko haizeak arrastatu egiten du, oso azkar zabaldua (600 km/h-ko abiaduran). Horrenbestez, Marten sekula ikusi den hodei orografikorik handiena sortzen da bizpahiru orduan.

Zenbait hilabetez, egunero sortzen da, egunsentia baino lehen. Eguzkia ateratzean, ordea, airearen tenperaturak gora egin ahala, lurrundu eta desagertu egiten da. ●